



# 2018

## URTEKO MEMORIA



GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA  
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA



## **GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA**

Frantzia hiribidea, 12  
20012 Donostia (Gipuzkoa)

### **HARREMANETARRAKO**

Bulegoa: 943 276 300 / Fax: 943 321 788  
E-posta: [info@comgi.eus](mailto:info@comgi.eus)

### **ORDUTEGIA**

Astelehenetik ostegunera: 9:00 - 13:00h. eta  
15.00 - 18.00h.  
Ostiraletan: 8.30 - 13.30h.

### **UDAKO ORDUTEGIA**

Astelehenetik ostiralera: 08:30-13:30 h. eta  
asteazkenetan: 08:30-17:30 h.



**GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA**  
**COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA**



Frantzia hiribidea, 12, 20012 Donostia (Gipuzkoa)

[info@comgi.eus](mailto:info@comgi.eus)

[www.comgi.eus](http://www.comgi.eus)

Diseinu eta maketazioa: [didart.eu](http://didart.eu)

Inprimaketa: Michelena Artes Gráficas s.l.

Donostia, 2019ko maiatza

## **ELKARGOKO LANGILEAK**

### **Bulego teknikoa**

Elena Irazusta  
[elena@comgi.eus](mailto:elena@comgi.eus)

Edurne Cristti  
[edurne@comgi.eus](mailto:edurne@comgi.eus)

Aiora Perdiguero  
[aiora@comgi.eus](mailto:aiora@comgi.eus)

Estibalitz Peña  
[estibalitz@comgi.eus](mailto:estibalitz@comgi.eus)

### **Aholkularitza Juridikoa**

Jon Pellejero  
[jpellejero@comgi.eus](mailto:jpellejero@comgi.eus)

### **Komunikazioa**

Ana Soro  
[prensa@comgi.eus](mailto:prensa@comgi.eus)

### **Fundazioa**

Ortzi Balda  
[coordinador@comgi.eus](mailto:coordinador@comgi.eus)

# 01

## PRESIDENTEAREN AGURRA

**2018KO URTEA BEREZIKI GOGORRA IZAN  
DA, BAINA BAITA PROIEKTU BIZI BEZAIN  
INTERESGARRIZ BETEA ERE, GIPUZKOAKO  
MEDIKUNTZAKO PROFESIOALEN  
JARDUNEAN HOBERA EGITEN JARRAITZEKO  
ASMOTAN BETIERE**



Uztailean, Elkargoko hauteskundeetara zerrenda bakarra aurkeztu ondoren, etxe honetako buruzagitzari heldu nion berriro ere, ni neu bezala Elkargoaren eginkizunarekin konprometituak eta ilusioz beteak zeuden lagunez osatutako Gobernu Batzordearen laguntzarekin.

Elkargoaren buruzagitzara iritsi nintzenean neure buruari ezarri nizkion helburuak hortxe jarraitzen dute, bere horretan tinkatuak, inoiz baino sendoago esango nuke: gure lurraldeko profesional medikoei laguntza eskaini eta profesional horien premiak estaltzeko eta Medikuntzaren hobe beharrerako lan egitea; Deontologia medikoa betetzeko, eta, beraz, biztanleria zaintzeko jarduten saiatzea, eta Elkargoa elkargokideei beraiei eta baita gizarte osoari ere hurbiltzen jarraitzea.

Asko izan dira 2018. urteak utzi dizkigun mugarriak: aski da memoria honen orrialdeetan barrena egitea horretaz guztiaz konturatzeko. Gobernu Batzorde honetatik gogor aritu gara lanean, Gipuzkoa mailan bezala baita estatu mailan ere, bokalia eta batzorde desberdinetan, medikuntza pribat-

tuaren, tutoreen edo Lehen Mailako Arretaren alorretan esaterako. Elkargoko Fundaziotik elkargokideen trebakuntza sendotzen jarraitu dugu, gure elkargokide guztientzat prestatutako ikastaro doako eta behar bezala akreditatuekin, hala nola baita aurrera eramandako gainerako proiektuekin ere: Kooperazioko Bulegoa, Biodonostia bekak, Fundazioa sariak... Eta Elkargoaren bulegotik beretik ere elkargoaren zerbitzurako lanean jarraitu dugu, bulego teknikitik bezala baita aholkularitza juridikotik ere, idazkaritzaren eta lehendarikatzaren lana ahaztu gabe, noski.

Egunez eguneko lan bizkor eta frenetiko horrez gain, nire presidente kargu honek urtean hainbat alditan narama Madriler a eta Estatuko beste leku batzuetara, beste Elkargoetako ordezkariekin harremanak izatera Medikuen Elkargoaren Antolakundeak (OMC-k) antolatutako biltzar eta batzar ugarietan. Bilera horietan jorratzen baitira, hain zuzen ere, lurralde guztietan komunak izanik guztiok kezkatzen gaituzten eztabaida-gai nagusiak: Lehen Mailako Arretaren egoera, geure sektorean bizi dugun laneko prekarietatea, BAME plazen eskasia, pseudoterapiak, medikuntzaren gizagabetzea edo alienazioa... Aurten, gainera, nabarmentzeko modukoa da Kode Deontologiko berria definitzeko abiatu den lana, Estatuko Elkargo guztietako ordezkarien ekarpenekin, oraindik ere amaitzeko dagoena.

2018. urtean aurrera eramandako proiektu eta egitasmo horietako batzuk xehetasun handiagoarekin bildu nahi izan ditugu dokumentu honetan, bai gure adiskide eta lankide diren medikuek, eta baita gizarteak ere, oro har, etxe honetako jarduera behin berriz sakonetik eta zehaztasun osoz ezagutu ahal izan dezaten.



02

---

ELKARGOA

# EGITURA

## GOBERNU BATZORDEA

Une honetan, ondorengo kideek osatzen dute Gipuzkoako Sendagileen Elkar-goko Zuzendaritza Batzordea:



Manuel García Bengoechea <b>LEHENDAKARIA</b>	Victor Irigoyen Murua <b>DIRUZAINA/KONTULARIA</b>	Ander Letamendia <b>BATZORDEKIDEA</b>
Valentín Collado Espiga <b>LEHEN LEHENDAKARIORDEA</b>	Iruñe Alzola Elizondo <b>BATZORDEKIDEA</b>	Belén López Rubio <b>BATZORDEKIDEA</b>
Ignacio Eizaguirre Sexmilo <b>BIGARREN LEHENDAKARIORDEA</b>	Carlos Benito Gómez <b>BATZORDEKIDEA</b>	Xanthe Luna Harvey <b>BATZORDEKIDEA</b>
María Belén Alonso Macías <b>IDAZKARI OROKORRA</b>	María Emma del Campo Pena <b>BATZORDEKIDEA</b>	Iñaki Sanz Esquiroz <b>BATZORDEKIDEA</b>
María Aranzazu Elícegui Sarobe <b>IDAZKARIORDEA</b>	María Asunción Guerra Alonso <b>BATZORDEKIDEA</b>	Carmen Solórzano Sánchez <b>BATZORDEKIDEA</b>

## BATZORDE IRAUNKORRA

<b>LEHENDAKARIA:</b> Manuel García Bengoechea
<b>LEHEN LEHENDAKARIORDEA:</b> Valentín Collado Espiga
<b>BIGARREN LEHENDAKARIORDEA:</b> Ignacio Eizaguirre Sexmilo
<b>IDAZKARI OROKORRA:</b> María Belén Alonso Macías
<b>IDAZKARIORDEA:</b> María Aranzazu Elícegui Sarobe
<b>DIRUZAINA/KONTULARIA:</b> Victor Irigoyen Murua

## DEONTOLOGIA BATZORDEA

Deontologia Batzordea hilean behin elkartzen da, dela medikuren baten kontra jarritako keparen bat aztertzeko, edo baita Étika medikoarekin zerikusia duten gaiak jorratu eta azterketa horretatik ateratako ondorioekin dokumentu bat argitaratzeko.



Deontologia Batzorde honen helburua (Elkargoaren Estatutuetako 36. artikuluaaren arabera) Gobernu batzordeari laguntza eta aholkularitza ematea da, elkargokideei arau korporatiboak eta profesionalak betetzeko eta betearazteko duten obligazioaren baitan.

Aipatutako helburu horiek bete ditezten beharrezkoak diren txosten eta ikerketa guztiak eskuratu dizkio Batzorde Iraunkorrak Deontologia Batzordeari, eta honek, txostenak eta ikerketak aztertu ondoren, bere konklusio eta ondorioen berri emango dio Gobernu Batzordeari. Hori izanik ere Deontologia Batzordearen egitekoa, alegia Gobernu Batzordeari aholku ematea, bere konklusioak eta irizpenak ez dira lotesleak izango Gipuzkoako Sendagileen Elkarteko Gobernu Batzordearentzat.

2018ko irailean berritu zen Elkargoko Deontologia Batzordea, eta geroztik horrela geratu da osatua:

### Deontologia Batzordea osatzen duten kideak

**LEHENDAKARIA:** José Manuel Maiz Urretagoyena

**IDAZKARIA:** María Aranzazu Albisu Otaño

**BATZORDEKIDEAK:** Jaione Argaya Orbegozi, Tomás Burutaran Usandizaga, José Manuel Santos Zarza, María Ángeles Zalakain Mendizabal, María Mercedes Lasá Garmendia




03

---

2018KO DATUAK


# ELKARGOKIDETZEAK

2018-12-31n ZEUDEN ELKARGOKIDETZEAK, GUZTIRA **4.150**




Emakumezkoak: 2.277 Gizonezkoak: 1.873

## LANEKO EGOERA



Jardunean  
Jubilatuak  
Langabezian

## JARDUERA-MOTA




Medikuntza sektore publikoan  
Medicina en sector privado  
Medikuntza mistoa

ESPEZIALITATEA	guztira		
Alergologia	€	8	17
	G	9	
Analisi Klinikoak	€	32	43
	G	11	
Analisi Klinikoak eta Biokimika klinikoa	€	0	0
	G	0	
Anatomia Patologikoa	€	15	26
	G	11	
Anestesiologia eta erreanimazioa	€	100	163
	G	63	
Angiologia eta kirurgia baskularra	€	3	13
	G	10	
Digestio-aparatua	€	32	67
	G	35	
Biokimika klinikoa	€	1	1
	G	0	
Kardiologia	€	14	55
	G	41	
Kirurgia Kardiobaskularra	€	2	7
	G	5	
Kirurgia Orokorra eta Digestio-aparatua	€	36	113
	G	77	
Ahoko Kirurgia eta Maxilofaziala	€	1	10
	G	9	
Kirurgia Ortopedikoa eta traumatologia	€	18	133
	G	115	
Kirurgia pediatrikoa	€	3	10
	G	7	
Kirurgia plastikoa, erreparatzailea eta estetikoa	€	9	21
	G	12	
Kirurgia torazikoa	€	0	8
	G	8	
Dermatologia Mediko-Kirurgia eta Benereologia	€	22	34
	G	12	
Endokrinologia eta nutrizioa	€	16	24
	G	8	

ESPEZIALITATEA	guztira		
Estomatologia	E	38	111
	G	73	
Farmakologia klinikoa	E	1	1
	G	0	
Genetika klinikoa	E	0	0
	G	0	
Geriatría	E	10	26
	G	16	
Hematologia eta hemoterapia	E	47	63
	G	16	
Hidrologia medikoa	E	3	3
	G	0	
Immunologia	E	1	4
	G	3	
Laneko Medikuntza	E	62	125
	G	63	
Gorputz-Hezkuntzako eta Kirol Medikuntza	E	7	33
	G	26	
Familia eta Komunitateko Medikuntza	E	622	908
	G	286	
Medikuntza fisikoa eta errehabilitazioa	E	28	46
	G	18	
Medikuntza Orokorra	E	577	978
	G	401	
Akreditatutako Medikuntza Orokorra	E	1	3
	G	2	
Medikuntza Intentsiboa	E	29	55
	G	26	
Barne Medikuntza	E	67	179
	G	112	
Lege eta Auzitegi Medikuntza	E	3	8
	G	5	
Medikuntza Nuklearra	E	3	6
	G	3	
Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publikoa	E	11	22
	G	11	

ESPEZIALITATEA	guztira		
Mikrobiologia eta parasitologia	E	12	22
	G	10	
Nefrologia	E	12	24
	G	12	
Neurologia	E	19	43
	G	24	
Neurokirurgia	E	2	15
	G	13	
Neurofisiologia Klinikoa	E	3	8
	G	5	
Neurologia	E	21	56
	G	35	
Obstetrizia eta Ginekologia	E	89	143
	G	54	
Oftalmologia	E	33	74
	G	41	
Onkologia Medikoa	E	19	26
	G	7	
Onkologia Erradioterapikoa	E	9	23
	G	14	
Otorrinolaringologia	E	15	50
	G	35	
Pediatria eta bere esparru guztiak	E	150	231
	G	81	
Psikiatria	E	78	143
	G	65	
Haur eta nerabeen psikiatria	E	0	0
	G	0	
Erradiodiagnostikoa	E	51	114
	G	63	
Erreumatologia	E	8	21
	G	13	
Urologia	E	7	44
	G	37	

## ELKARGOKIDETZEEN EBOLUZIOA, AZKEN HAMAR URTEOTAN (2008-2018)



## 2018KO ELKARGOKIDETZEETAN IZANDAKO MUGIMENDUAK

↑ **ALTAK: 187** ↓ **BAJAK: 103**

- Beste probintzia batera: **68**
- Jarduera utzi eta atzerrira, bere herrira itzultzeagatik: **18**
- Hildakoak: **17**

## MEDIKU OHOREZKOAK ETA JUBILATUAK: **52**

2018KO OHOREZKO MEDIKUA: **JOSE MARÍA IRIGARAY URRUTIA JN.**

## 2018KO MEDIKU OHOREZKOAK

- Aguilera Ceballos, Fernando
- Alberdi Loinaz, Juan Ignacio
- Alvarez-Coca Gonzalez, Mariano
- Angulo Oleaga, Pedro Fernando
- Apestegui Olaizola, Francisco
- Aranzadi Martinez, M<sup>a</sup> Jesús
- Atorrasagasti Larrañaga, M<sup>a</sup> José
- Ayllon Martiarena, Ramón
- Azaldegui Berroeta, Victoria
- Azpiroz Vidaur, Fco. Javier
- Barrios Maeso, José Antonio
- Cabezudo Zabala, José Juan
- Carrera Goñi, Nieves
- Cecilia Gomez, José Alberto
- Cojo Gonzalez, Restituto
- Cortabitarte Zaldumbide, Nieves
- De Eguia Santander, Enrique Alberto
- Eceiza Telleria, María Del Coro
- Egurbide Arrieta, Izaskun
- Elosegui Lopez-Quintana, Carlos
- Fernandez Gonzalo, Pablo
- Gonzalez Galarraga, M<sup>a</sup> Carmen
- Gonzalez Perez-Yarza, Eduardo
- Guereca Barandiaran, Luis
- Hernandez Ortiz, Carlos
- Inaraja Alcorta, José María
- Irazusta Goena, Martín
- Laborda Andres, Enrique
- Larraya Nieto, José Gerardo
- Lecuona Navea, Margarita
- Lerchundi Iceta, M<sup>a</sup> Elena
- Lopez Lopategui, María Carmen
- Martinez Campos, M<sup>a</sup> Nicolasa
- Martinez De Lizarduy Alvarez, J. Luis
- Marty, Jean-Loup J. G
- Mendibil Bilbao, Antonio M<sup>a</sup>
- Murillo Ruiz, Manuel
- Nogues Perez, Agustín
- Ojanguren Ulacia, Juan Antonio
- Orbegoza Alberdi, Javier
- Oreja Del Rio, Benigno
- Orus Iturralde, Javier
- Otegui Echeverria, Pedro
- Rivero De Torrejon, Francisco De
- Rodriguez Atin, José Anastasio
- Rubio Arazuri, M<sup>a</sup> Dolores
- Ruiz De Munain Roman, José Luis
- Sarasola Echevarria, Ramón
- Torregrosa Laveau, Carlos De
- Urdapilleta Zugasti, Gregorio
- Vidal Costa, Juan
- Yarza Guridi, Gregorio Fco.

## 2018AN HILDAKOAK

1. José Miguel Azpiazu Moreno (2018-01-22)
2. Luciano San Sebastian Arteaga (2018-02-21)
3. José Luis Azcorbebeitia Astorquia (2018-02-23)
4. José Luis Cabezudo Hernandez (2018-03-01)
5. José Luis Munoa Roiz (2018-03-07)
6. Miren Lore Diaz Telleria (2018-04-23)
7. José María Martinez Martin (2018-05-15)
8. Roberto Goikoetxea Garmendia (2018-06-02)
9. Ana Jén Fernández (2018-06-07)
10. Juan María Guimón Unzurrunzaga (2018-06-15)
11. Justino Salaverria Garmendia (2018-06-21)
12. Alberto Pierola Zabalza (2018-06-28)
13. José Antonio Soriazu Mugica (2018-07-02)
14. M<sup>a</sup> Del Pilar Marco Garde (2018-08-01)
15. Antonio Mendizabal Echeverria (2018-08-27)
16. Concepción Bereciartu Zabaleta (2018-09-05)
17. Justo Atristain Gorosabel (2018-09-18)

## ELKARGOKO KUOTA

Oraindik ere bere horretan mantentzen da 2015eko martxoaren 4ko Batzar Orokorrean onartu eta 2015eko apirilaren 1etik aurrera ezartzea erabaki zen elkargoko kuota bera:

Elkargoko Kuota	60 €
Umezurtzen eta Babes Sozialeko Patronatua Fundazioa (aukerakoa)	23,77 €
GUZTIRA, hiru hilekoan	83,77 €
Mediku egoiliarrentzako kuota (lizentziaturaren osteko lau urteetan)	
Elkargoko Kuota	28 €
Umezurtzen eta Babes Sozialeko Patronatua Fundazioa (aukerakoa)	23,77 €
GUZTIRA, hiru hilekoan	51,77 €

## ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA


2018. urterako AMA etxearen poliza aurreko ekitaldiko maila berean mantentzen da, aurtengoa izanik kontratua amaitzen den urtea.

- Bajak 2018-12-31n: **137** elkargokide
- Altak eta gehikuntzak 2018an: **204** elkargokide
- Aseguratuak 2018an: **2.684** elkargokide

# ELKARGOKIDEARENTZAKO ZERBITZUAK

Medikuak elkargokide egitea nahitaezkoztat jotzen zuen Errege Agindua argitaratu zenetik urtebetera, 1899ko apirilaren 20an alegia, osatu zenetik, Gipuzkoako profesional mediko guztiei medikuntzaren jardueran aritzeko laguntza eta erraztasun guztiak eskaini nahi dizkie Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialak (COMGI), jardun egoki hori pazienteen eta gizarte osoaren mesederako izan dadila bermatzeko asmoz betiere.

## ELKARGOKIDEARI ESKAINITAKO ZERBITZUAK



## BULEGO TEKNIKO ETA BIRTUALA

Elkargokideek euren jarduera profesionalaren inguruan izan ditzaketen beharrian guztiei Elkargoko bulegotik ematen zaie erantzuna. Bulego teknikoaz gain, bada Elkargoko web-orrian beste bulego birtual bat, eta bertan elkargokideak modu erraz eta bizkorrean egin ditzake izapiderik gehienak..



## AHOLKULARITZA JURIDIKOA

Elkargoko Aholkularitza Juridikotik, Carlos Pellejero eta Jon Pellejero abokatuek aholkularitza juridikoa eskaintzen diete horren premian dauden elkargokide guztiei, Elkargoaren organo guztiei ere (Gobernu Batzordea, Batzorde Iraunkorra, Deontologia batzordea, etab.i) aholkua eta laguntza emateaz gain.

## AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN DATUAK 2018AN

ELKARGOKO EGOITZAN IZANDAKO JARDUERAK	
Batzordearen txosten juridikoak eta kontsultak, idatziz	17
Txosten juridikoak, medikuaren eskariz eginak	18
ELKARGOKIDEEI ESKAINITAKO AHOLKULARITZA	
Aurrez aurreko kontsulta pertsonalak, Elkargoaren egoitzan	321
Berlaratu gabeko kontsultak / e-mailak (jasoak eta bidaliak, gutxi gorabehera)	500
Berlaratu gabeko kontsultak / telefono bitartez (jasoak eta bidaliak, gutxi gorabehera)	650
Irekitako espedienteak: Egindako kontsulten ondorioz hainbat espediente ireki dira formatu fisikoan, jorratutako auzi horien izapidetzea/erreklamazioa/erantzuna bideratzeko	193
Medikuen kontra jarritako kenak	15
JARDUKETA JUDIZIALAK	
Lan-arloko Jurisdikzioa	31
Administrazioko Auzien Jurisdikzioa. (Osakidetza)	17
JURISDIKZIO ZIBILA ETA ZIGOR-ARLOKOA / ERREKLAMAZIOAK / ERANTZUKIZUN PROFESIONALEKO EPAIKETAK	
Demandaren aurreko jarduketak	14
2018. urtean izapidean zeuden auziak	12
2018. urtean ebazitako auziak	16
Itunak	2



## ESKAINITAKO BESTE ZERBITZU BATZUK

- Elkarre profesionalak eratzea eta altak
- Aholkularitza diziplinazko espedienteetan
- Altak Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, jarduera pribatuari ekiten dioten medikuentzat
- Kontsultako altak, osasun-arloan
- Altak, Osasun Publizitateko Erregistroan

## KEHETASUNAK, 2018. URTEA

Aurkeztutako demanden kopuruak maila apalean jarraitzen du, baina erreklamatutako diru-kopuruak, aldiz, nabarmen gehitu dira. Azken urteotan azaleratuz joan den bezala, gehikuntza hori zirkulazioko istripuentzat ezarritako Baremo berria (35/2015 Legea) indarrean jartzearen ondorio da, osasun-erantzukizuneko kasuetan ere baremo horixe aplikatzen baita. Horregatik, ohartarazi beharra dago ezen gaur egun ia kasu guztietan baimen informatua dagoen arren ere, baimen hori esplizituagoa izan dadila eta eta pazientearen arrisku pertsonalizatuak eta ebakuntzaren alternatibak bertan argi garbi ager daitezela eskatzen hasi direla epaileak.

Aurrekoaz gain, beste joera bat ere agertzen hasi da azken aldi honetan, ziklikoa izan ohi dena, medikuaren erantzukizuna badela ezartzea eskatzen duena hain zuzen ere. Eta arestian aipatu den bezala, erreklamatutako diru-kopuruak eta zigortuak izateko aukerak gorantz doazela ikusita, Erantzukizun Zibileko Aseguruaren gutxieneko zenbatekoa 300.000 euroraino igotzea erabaki zuen Elkargoak 2018. urtean.

Azkenik, medikuek jasandako erasoei dagokienez, bi salaketa besterik ez ziren izapidetu, eta epaiketaren zain zeuden beste bi denuntziarekin jarraitu zen. Dena den, Aholkularitza juridikotik, eta baita Elkargotik beretik ere, lan-eremuan jasandako eraso guztien, ahozkoen nahiz fisikoen, berri Elkargoan emateak duen garrantzia gogorarazi nahi genuke behin berriz, kasu bakoitza behar bezala baloratu eta aholkularitza egokia eskaini ahal izateko.

## BABES SOZIALA

### OMC-ren Babes Sozialerako Fundazioa

Elkargoan laguntzak eskaintzen zaizkie, Fundazio honen bitartez, premia gehien duten elkargokideei edota horien senideei. Lanbide medikoa osatzen duten kideek eta horien familiek izan ditzaketen premia eta beharrian larrienei eta oinarrizkoenei, direla izaera sozialekoak, hezkuntza-mailakoak nahiz osasun-alorrekoak, kasu egin eta erantzuna ematea da Fundazioaren eginkizun nagusia, sistema publikoak eskaintako laguntzen osagarri moduan, gizarte-mailan gerta daitezkeen arriskuei modu integrean aurre egin ahal izateko aukera emango dieten prestazio, programa eta zerbitzuen bitartez.

## GIPUZKOAKO DATUAK

Gipuzkoan 2.951 dira euren borondatez Fundaziora atxikiak dauden elkargokideak, 200.953,21 €-koa izanik elkargokide horiek urtero Fundaziora egiten duten ekarpena. Ekarpen horri esker, laguntza hauek ematen dira:

- Gipuzkoako mediku elkargokideen 24 gazte umezurtzek 93.587,31 euroko laguntza jaso zuten guztira iaz aipatu Patronatu horren eskutik. Patronatuak bi eratako laguntzak dauzka eratuak umezurtzentzako: 21 urtez azpikoentzako laguntzak, batetik, eta ikerketa-bekak adin horretatik aurrera ere ikasten jarraitzen dutenentzako, bestetik. 21 urtez azpiko 13 gaztek 4.771 €-ko laguntza jaso zuten batez beste, izanik diru-laguntza guztira 64.910,08 €-koa. Eta 21 urtetik gorako 8 gaztek ikasketa-beka bana jaso zuten, izanik diru-laguntza guztira 28.245,72 €-koa.

- 16 pertsonak jaso zuten gizarte-babeseko laguntza: desgaitasuna zuten 8 umezurtzek, izanik diru-laguntza guztira 46.956 €-koa; desgaitasuna zuten 3 medikuk, izanik diru-laguntza guztira 15.563,38 €-koa; 3 mediku jubilatuk, 29.498,52 € guztira; mediku batek egoitza, izanik urteko kostua 6.216 €-koa; eta alargun batek, izanik laguntza 9.132 €-koa.

Fundazioaren kuota hori borondatezkoa bihurtu zenetik, elkargokide batzuk baja eman dute zerbitzu horretan, eta elkargokide egiten diren profesional berri gehientsuenek ere uko egiten diote zerbitzu horretan parte hartzeari. Horregatik, azken 2 urteotan nabarmen jaitsi da alde horretatik jasotako diru-kopurua.

Gipuzkoako Sendagileen Elkargotik bereziki azpimarratu nahi genuke duela 100 urte baino lehenagotik hasita Fundazio honek profesional medikoei nahiz horien familiei premiarik gehien duten une larrietan laguntza bikaina eskainiz egindako lan eskerga.

# KOMUNIKAZIOA

Elkargoko komunikazio-sailetik egunero aritzen gara lanean elkargokide guztiei informazio egoia eskaini ahal izateko, beren jarduera profesionalarekin eta elkargoko jarduerarekin lotuak dauden gaitan (Erantzukizun Zibileko aseguruak, abisuak, titulazioa, araudiak...) eta baita interesgarriak iruditzen zaizkigun beste gai batzuetan ere: jardueren agenda, gaurkotasuneko gai medikoak, enplegua, osasun-alertak,...

## OHIZKO EUSKARRIAK

WEB: [www.comgi.eus](http://www.comgi.eus)

Hauxe da, hain zuzen ere, elkargokideek gehien erabiltzen duten kanala, lana bilatzeko bezala baita ikastaroen edo izapide burokratikoaren berri izateko ere. Elkargoaren webgunea une oro eguneratzen da (albisteak, enplegua, alertak, ikastaroak, jarduerak...), etengabe berrituz eta hobetuz doan heinean.

## BULETIN ELEKTRONIKOAK

- **AGENDA buletin elektronikoa:** Astelehene-tan bidaltzen den buletin honetan jasotzen dira Elkargoko jarduerak, eta baita interesgarriak diren beste jarduera batzuk ere.
- **GAURKO GAIAK buletin elektronikoa:** Asteazkenetan bidaltzen den buletina. Gaurkotasun handiko osasun-alorreko gaien hautaketa bat jasotzen da bertan, lehentasuna emanaz komunikabide espezializatuei.
- **MEDIKUEN AHOTSA buletin elektronikoa:** Hilabete-amaieran bidaltzen den buletina. Bertan jasotzen dira azken asteetan aldizkarian jorratutako edukiak: erreportajeak, elkarrizketak, presidentearen editoriala, etab.
- **Abisuak:** Elkargoak hala deritzonenean, buletin berezi bat bidaltzen da izaeraz administrazioko lanarekin lotuagoak dauden albiste berri emateko (aholkularitza juridikoa, aseguruak, elkargokidetzak...).
- **Gonbidapenak:** Fundazioetik antolatzen den trebakuntzako ekintza bakoitzeko online gonbidapen bat sortzen da, eta elkargokideei bidaltzen zaie, jarduera horren berri izan eta ikastaroan izena erraz eta modu bizkorrean emateko modua eduki dezaten.



## ALDIZKARI DIGITALA

Medikuen Ahotsa aldizkaria Gipuzkoako medikuei zuzendua dago, eta hilero-hilero geure elkargokideentzat interesgarriak diren edukiak sortzen jarraitzen du. Elkargoan egiten diren jarduerak (editorialak, Batzorde desberdinetan jorratutako gaien laburpenak, ekitaldi instituzionalak...) bildu eta horien berri emateaz gain, geure lurraldearen errealitate medikoa eta baita bertako profesionalak hobeto ezagutzeko aukera emango duten erreportajeak eta elkarrizketak ere egiten dira aldizkarian.


## SARE SOZIALAK

Elkargoaren sare sozialetan eduki interesgarriak hedatzeko lanean jarraitu dugu. Horrela, 2018an jarri zen estreinako Instagram sarea, ohikoak diren Twitter, Facebook eta LinkedIn sareekin ere jarraituz.

Aurrekoaz gain, materiala ikus-entzunezko formatuan ere lantzen da, esate baterako Gipuzkoako medikuei egindako elkarrizketak, txostenak edo ekitaldien laburpenak, Elkargoaren youtube-ko kanalean ikus daitezkeenak.

## EKINTZAK KOMUNIKABIDEETAN

Elkargoak etengabeko harremana dauka hedabide eta komunikabideekin, bertakoekin bezala baita espezializatuagoekin ere, hiritarrentzat interesgarriak deritzegun gaiak zabaltzeko eta horien berri emateko. Hedabideek egindako eskaerei ere erantzuten diegu, beraiek lantzen dituzten gaien inguruan informazioa eta/edo harremanetarako pertsonak eskaintzeko.





04

---

2018KO JARDUERA

## EKITALDI INSTITUZIONALAK

Medikuen Elkargoen Antolakundeak (OMC-k) antolatutako 9 Batzarretara joateaz gain, Elkargoaren ikuspuntutik ondokoak azpimarratuko genituzke:

### BIZITZA POLIZA KOLEKTIBOA AMAREKIN SINATZEKO EKITALDIA

Elkargoak Bizitza poliza kolektibo berri bat sinatu zuen 2018an AMA aseguru-etxearekin, eta poliza horrekin estaldura ematen zaie Gipuzkoako 4.000tik gora elkargokideri. Poliza horren sinadura-ekitaldia Madrilen egin zen, A.M.A. aseguratzai-learen egoitzan hain zuzen ere, uztailaren 20an, eta bertan izan zen Manuel García Bengoechea Elkargoaren presidentea, Belén Alonso Elkargoko idazkariarekin, Víctor Irigoyen diruzainarekin eta Carlos Pellejero aholkulari juruidikoarekin batera. Poliza berri horri esker hildako elkargokideen familiartekoei laguntza ekonomikoa ematen jarraitzeko aukera izango du Elkargoak heriotzaren ostean. Data berean, eta A.M.A. etxearen egoitzan baita ere, berritu zen Sendagileen Elkargoak duela urte askotatik hasita A.M.A. Aseguru-etxearekin hitzartua daukan Erantzukizun Zibil Profesionaleko poliza kolektiboa.

### LANBIDE MEDIKOAREN V. KONBENTZIOA

2018ko azaroaren 16an eta 17an ospatu zen Madrilen Lanbide Medikoaren V. Konbentzioa, eta bertan izan ziren Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialaren ordezkarietan Gobernu Batzordeko kide batzuk, Elkargoko hainbat langilerekin batera.



Topaketa horretan medikuen kolektiboa-arentzat funtsezkoak eta ezinbestekoak diren arazoak jorratu ziren, hala nola medikuaren eta pazientearen arteko erlazioa, sendagileen trebakuntza eta akreditazioa, giza baliabideen inguruko osasun-politikak, doktoreei egindako erasoak, profesionalismoa osasungintza pribatuan eta eutanasia. Elkargoetako esperientzien moduluan, berriz, Zinema&Osasuna izeneko Haur Gela aurkeztu zuen Gipuzkoako Elkargoak, haurren zinema-emanaldien bidez etxeko txiki- kien heziketa sanitarioa sendotzeko asmotan martxan jarritako egitasmoa.

# ELKARGOKO EKITALDIAK

## Medikuaren Eguna

Aurtengo urrian Elkargoan egindako ekitaldi zirrargarri batean, 2018ko ohorezko medikuak elkartu ziren, eta omenaldi berezia eskaini zitzaion Ohorezko Medikua izendatua izan zen Jose María Irigaray Urrutia doktoreari. Egunari amaiera ezin hobea emateko anaitasun-afaria antolatu zen Fagollaga jatetxean.



## BAMEn harrera

Urtero bezala, Elkargoak ongietorria eman nahi izan zien Unibertsitatean ikasketa-urte luzeak egin eta BAME azterketarako beste prestaketa-urte bat eman ondoren, beren egoitza-aldia Gipuzkoan hasi zuten gazteei. 2018. urtean 78 izan ziren euren egoitza gure lurraldean burutuko duten mediku gazteak. Beraien zalantzak eta kezak argitu eta lunch goxo batez gozatzeko aukera izan zuten guzti-guztiei ongietorri ekitaldian.



## Eguberri festa

Abenduan ospatu zen Eguberri Festa Elkargoan, ohikoa den bezala, elkargokideen seme-alabei zuzendutako ekitaldiarekin. "Pixi Post eta Eguberritako jeinuak" izeneko film-emanaldiarekin eman zitzaion hasiera ekitaldiari, eta jarraian Eguberritako Zorion-txartelen eta Gabonetako Ipuinen lehiaketan saiak banatu ziren. Azkenik, txokolatada bat eta ustekabeko opari ugari banatu ziren bertaratutako guztien artean.



# ELKARGOKIDEENTZAKO JARDUERAK

Fundazioak antolatutako trebakuntzako ikastaroez gain, eta horiek zehatz-mehatz zerrendatzen dira Fundazioari eskainitako atalean, Elkargoak beste hainbat jarduera ere antolatu ditu 2018an zehar, adibidez:

- **Osakidetzako Lan Eskaintza Publikoaren alderdi legal komuna prestatzeko ikastaroa**

Maiatzean doako ikastaro bat antolatu zen Elkargoan, Osakidetzako Lan Eskaintza Publikoaren barruko legeei buruzko alderdi komuna prestatzeko. Ikastaroa bi txandatan eskaini zen, goizez nahiz arratsaldean alegia, Osakidetzako 2016-2017ko lan-eskaintza publikoaren gaitegi legala osatzen zuten legeetan jasotako alderdirik garrantzitsuenak errepasatzeko asmoz.

- **Eremu medikoan datuak babesteko legearen inguruko berrikuntzei buruzko informazio-solasaldia**

Sendagileen Elkargoak trebakuntza-saio bat antolatu zuen bere elkargokideentzat Datuak Babesteko Europako Erregelamendu berriaren inguruan, araudi horri buruz izan zezaketan edozein zalantza argitzeko. Solasaldia medikuntza pribatuaren sektorerara bideratua zegoen batik bat eta datuak babesteko arau berria behar bezala betetzeko kontuan hartu beharreko alderdirik garrantzitsuenak jorratu ziren bertan.

- **Zeliakiari buruzko jardunaldia hiritarrentzat, EZEGUIko bazkideentzat eta medikuentzat**

Elkargoak gaixotasun zeliakoari buruzko dibulgazioko jardunaldi bat antolatu zuen urrian EZEGUIrekin batera, eta bertan Donostia Unibertsitate Ospitaleko Pediatria Zerbitzuko Haurren Gastroenterologia Unitateko arduraduna den Javier Eizagirre doktoreak eta Donostialdea ESIko Digestio Aparatuko Zerbitzuburua den Eva Zapata doktoreak hartu zuten parte. Hiritarrei bezala baita medikuei beraiei ere gaixotasun honen diagnostikoa hobetzeko informazioa eskaintzea izan zen jardunaldiaren helburu nagusia.

- **Eguberritako zorion-txartelen eta istorio grabatuen lehiaketa**

Bosgarren urtez jarraian, Eguberritako Zorion-txartelen eta gailu bereziekin grabatutako istorioen lehiaketak antolatu zituen Elkargoak jai-egun horietan. Sarien banaketa abenduaren 14an izan zen, Elkargoan antolatu ohi den Eguberritako Festarekin batera. Hauek izan ziren lehiaketen irabazleak:

**POSTALAK:**

- Haurren kategoria (6-9 urte): Lorea Lasala Zubillaga, Donostiakoa. 7 urte.
- Gazteen kategoria (9-12 urte): Lucía Ulacia Castillo, Donostiakoa. 10 urte.

**ISTORIOAK:**

- 8-12 urteko kategoria: Akira Arroyo Alonso, Lasartekoa. 8 urte.
- 13-18 urteko kategoria: Paula Puértolas Guerra, Donostiakoa. 18 urte.

# JARDUERA IREKIAK

## HIRITARRENTZAKO HEZIKETA:

2018ko irailan jarduera berri bat jarri zen martxan: Zinema&Osasuna Haur Gela izenekoa. Hiritarrei, eta zehazkiago esateko etorkizuneko helduei (umeei, alegia) heziketa sanitarioa eskaintzea da egitasmo honen helburua. Hilero, aurreneko ostira-lean (jai-eguna edo zubia denean izan ezik) etxeko txikienei zuzendua dagoen film bat proiektatzen da Elkargoan, geure osasun fisiko eta emozionalarekin lotua dagoena betiere, eta emanaldiaren ostean solasaldi labur bat egiten da, umeengan pentsatua bereziki, filmean ikusitako ideiak edo kontzeptuak lantzen laguntzeko. Solasaldia Elkargoko idazkaria den Belén Alonso medikuak gidatzen du, bera ere medikua den txotxongilo baten laguntzarekin, hau-rrikiko harremana erraztu eta bideratzeko. 2018. urtean 4 film proiektatu ziren:

- Irailaren 7an: **BIG HERO 6**
  - Urriaren 5ean: **UP**
  - Azaroaren 9an: **EL LIBRO DE LA VIDA**
  - Abenduaren 14an: **PIXI POST ETA OPARI**
- EMAILEAK**



## SENIOR IKASGELA MEDIKOA

Aurten ere bide beretik jarraitu du Elkargoko Jubilatuen batzordekidea den Ramón San Sebastián doktoreak abiatutako hitzaldi-zikloak. Une honetan Ander Letamendia batzordekideak hartu du egitasmoaren zuzendaritza, bere karguari dagokionez. 2018an hitzaldi hauek eskaini ziren:

- Urtarrilak 25: **Escorial-en eraikuntza**. Enrique Samaniego Dk.
- Otsailak 22: **Mediku baten esperientziak Saharan**. Juan Carlos Izaguirre Dk.
- Martxoak 22: **Alzheimer gaitzaren alderdi prebentiboak**. Enrique Arriola Dk.
- Maiatzak 31: **Zaintzaileak**. Juan Isturiz Dk.
- Ekainak 28: **Euskal tribuen kristautzea**. Jose Luis Orella Jn.
- Urriak 25: **Garunaren plastizitatea eta neuro-errehabilitazioa**. Ander Ramos Dk.
- Azaroak 29: **Elkano, euskaldunak eta lehen mundu-bira**. Daniel Zulaica Dk.
- Abenduak 13: **Zarzuclaren hastapenak**. Carlos Benito Dk.

## MUSIKA EMANALDIAK

2018. urtean zehar ere azken urteotan Carlos Benito Dk.aren eta Donostia Musikaren eskutik hain ohizkoak bihurtu diren musika emanaldiak eskaintzen jarraitu zen. Obra hauek eskaini ziren:

- 2018-01-16: DONIZETTI, Lucia de Lammermoor
- 2018-02-06: BRAHMS, Concierto para violín-Sinfonía nº 1
- 2018-02-20: PERGOLES, Madrigales – BIBER, Misa Salisburgensis
- 2018-03-06: BRAHMS, Concierto para piano nº 1- Sinfonía nº 2
- 2018-03-13: SHOSTAKOVICH, The Golden Age (Ballet)
- 2018-04-10: BRAHMS, Concierto para piano nº 2- Sinfonía nº 3
- 2018-04-25: P. SOROZABAL, La del manojó de rosas
- 2018-05-08: BRAHMS, Sinfonía nº 4
- 2018-05-29: New York City Ballet en Paris
- 2018-06-19: ROSSINI, LA italiana en Argel. Teresa Berganza
- 2018-10-09: BELLINI, I puritani
- 2018-10-30: OFFENBACH, La Bella Helena
- 2018-11-13: ROSSINI, L'ocasio fa il ladro
- 2018-11-27: BERLIOZ, Sinfonía fantástica (homenaje a Leonard Bernstein)
- 2018-12-04: J. STRAUSS, El barón gitano
- 2018-12-20: TCHAIKOVSKY, Cascanueces


## LIBURUEN AURKEZPENA

2018. urtean zehar Gipuzkoako elkargokideek idatzitako hainbat liburu aurkeztu ziren Elkar-goaren egoitzan, ondorengoak hain zuzen ere:

### "2. Karlistaldia Gipuzkoan (1872-1876). Tolosa eta Donostia: Bi eredu kontrajarri"

**José Antonio Recondo Dk.**

Huts egindako hainbat altxamendu-saioren ondotik, 1872ko abenduaren 20an hasi zen Euskal Herrian 2. karlistaldia (hirugarrena, aldiz, Espainian), Carlos hautagaia 1876ko otsailaren 27an Frantziara erretiratzearekin batera amaitu zena. Gipuzkoan borroka gogor eta odoltsu moduan bizi izan zen gatazka hura eta barkamenik eta errukirik gabeko guduaren aldekoa zen Santa Cruz apaizak protagonismo berezia izan zuen bertan.



### "Aspaldiko adiskidetasuna"

**Luis Berdejo Dk.**

Luis Berdejo Lambarri Dk.aren lehen eleberria da "Aspaldiko adiskidetasuna" izenekoa, eta bi kirurgialari, ikertzaile gazte bat eta egunerokotasunetik oso urrun geratzen diren xehetasun mordoak aurkituko ditugu bertan rol nagusietan.

### "A dieta en la vida real"

**Silvia Zuluaga Dk.**

Sarean nagusi den desinformazioak kezkaturik, Silvia Zuluaga Dk.ak blog bat ireki zuen duela urte batzuk nutrizioaren inguruan kalitatezko informazioa eskaintzeko eta idazteari gustua hartu ondoren Zaindu eguneroko bizimoduan



(¡A dieta! En la vida real) argitaratzea erabaki zuen, argaltzeko dieten gaia modu arin, atsegin, entretenigarri eta desmitifikatzailean jorratzen duen eleberria.

### **"Gaixorik dagoen medikua: taupada-hotsa fonnendoaren bestaldean"**

#### **José Luis Paulin Seijas Dk.**

"Gaixorik dagoen medikua: taupada-hotsa fonnendoaren bestaldean" izeneko lanak norberaren kasuan sentitutako gaixotasunaren bizipena kontatzen digu, Jose Luis Paulin Seijas liburuaren egileak bere larruan bizi izan zuen bezalaxe. Bere mediku-izaerari esker normalean eseri ohi ez den alde horretan, pazientearen aldean hain zuzen ere, kokatzeko aukera izan zuen. Eta hortik abiatuta "bizi izandako pertzepzioak eta ikasitako errealtateak, ezagunak batzuk, susmatuak beste batzuk eta erabat ezezagunak beste asko" partekatu nahi izan ditu, autoreak berak dioen moduan.

### **"Spanish doctors welcome"**

#### **Jose Maria Aldaya Dk.**


Eleberri honetan, laurogeiko hamarkadaren hasieran, ikasketak amaitu ondoren, lan bila Inglaterrara alde egitea erabakitzen duen euskal mediku baten bizipenak jaso ditu Aldaya doktoreak. Eleberriak autorearen bizipen pertsonalak kontatzen ditu, hein batean bederen, izan ere Aldayak protagonistaren bide bera jarraitu baitzuen, ikasketak amaitu ostean Inglaterrara joan baitzen. Asmatutako edo neurritz kanpoko bizipenak ere tartekatzen diren arren, eleberrian kontatzen diren anekdota gehientsuenek badute bere egia puntua, bertako izenak gezurrezkoak badira ere.



## BESTE EKINTZA BATZUK

**“García del Río Dk.aren azken orduak” liburuaren aurkezpena**

2018an “García del Río Dk.aren azken orduak” izeneko liburua argitaratu zuen Elkargoak. 2018ko Medikuaren Egunean aurkeztu eta banatu zen liburu horretan aitaren bizitza profesionala nahiz pertsonala, eta medikuntzaren inguruan zuen ikuspegia azaltzen dizkigu hildakoaren semeak.



## COMGI txirrindulari-taldea sortu da

Urrian izan zen Malagan medikuentzako Espainiako X. Txirrindularitza Txapelketa. Aurten 19 mediku txirrindulariz osatutako taldea joan zen geure probintziatik, aurreneko aldiz, eta Elkargoak maillot bat diseinatu zuen beraientzat, Elkargoaren irudiarekin. Gure lankide Ignacio Sanz-ek hirugarren postua eskuratu zuen bana-kako lehiaketan, eta talde osoak ere hirugarren postua erdietsi zuen taldekako lehiaketan.



## HITZARMENAK BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN

### AMArekiko harremana

Elkargoak eta osasun-arloko profesionalen mutua den AMA aseguru-etxeak, lankidetza estuan dihardute Elkargoaren hainbat proiektutan. Mutua horrek elkargokideei eskaintzen dizkien estaldurez gain, bera da Fundazioaren patronorik handiena, eta bere urteko ekarpena laguntza bikaina gertatzen da elkargokideentzako antolatutako doako trebakuntzako ikastaro guztiak eta Fundazioaren sariak finantzatzeko. Era berean, ekarpen bereziak ere egin ditugu aparteko hainbat ekitaldi direla medio, esate baterako Elkargoak egin ohi duen Eguberrietako Festa antolatzeko.



### BANKOArekiko harremana

Elkargoak Donostiako Bankoa banketxearekin duen harremana duela urte asko abiatu zen, eta denborak aurrera egin ahala harreman hori finkatuz eta sendotuz joan da. Elkargoaren banku-erakundea izateaz gainera, Bankoak ondo baino hobeto ezagutzen ditu Elkargoan aurrera daramatzagun proiektuak, eta horregatik Fundazioaren patronoa ere bada, urtero diru-kopuru bat bideratuz babesletza horretarako. Areago, Bankoak finantza-produktu eskusiboak eskaintzen dizkie Gipuzkoako elkargokideei eta beraien familiartekoei, abantaila nabarmenekin, Elkargoarekin aspalditxotik ezarria daukan lankidetzarako akordioari eta harreman estuari esker.



# 2018AN SINATUTAKO HITZARMENAK

## **EZEGUI**

Gipuzkoako Sendagileen Erlkargoak lankidetzako hitzarmen bat sinatu zuen 2018an EZEGUI, Gipuzkoako Zeliakoen Elkartearekin, zeliakia gaixotasunak suposatzen duen errealitatearen berri eman eta gaitzaren inguruko informazioa hedatzen lan bateratua egiteko. Hitzarmen horren barruan dibulgazioko jardunaldi bat antolatu zen, zeliakiaren gaur egungo errealitatea, gaixotasuna atzematen lagun dezaketen sintomak, diagnostikoaren nahiz tratamenduaren alorrean dauden berrikuntzak, etab. zertan diren azaltzeko. Gaitz horretan erreferentzia diren Gipuzkoako hainbat medikuk hartu zuten parte solasaldian.

## **MUGARIK GABEKO MEDIKUAK**

Sendagileen Elkargoak lankidetzako hitzarmen bat sinatu zuen 2018an Mugarik gabeko Medikuak erakundearekin. Osasungintzaren ikuspegitik nahiz gizatasunaren ikuspegitik Mugarik gabeko Medikuak erakundeak egiten duen lana ezagutzera ematea litzateke hitzarmen horren helburu nagusia, Elkargoko Fundazioak burutzen dituen jardueren barruan hainbat tailer eta eztabaida-mahai sustatuz, gizartearentzat oro har eta medikuen kolektiboarentzat bereziki interesgarriak izan daitezkeen gaien inguruan.

## **MINTZANET**

Elkargoak lankidetzako hitzarmen bat sinatu zuen MINTZANET proiektuarekin, euskera online

moduan ikasi eta praktikatzeko aukera gisa elkargokideek plataforma hori erabil dezaten. Egitasmoa ezagutzera emateaz gain, elkarrizketak egin zitzaizkien sistema hori erabiltzen ari ziren hainbat medikuri, beraien esperientzien berri izateko. Azkenik, elkarrizketa horiek Elkargoko aldizkarian argitaratu ziren.

## **IMQ**

2018 urte-amaieran Elkargoa akordio batera iritsi zen IMQ-rekin, lurraldeko elkargokideek aseguratzaile horrek eskaintako aseguru medikoetan baldintza eskusibo guztien onurak jaso hal izan ditzaten. Aseguru mediko bat 70 urte eduki arte kontratatzeko aukera lortu izana da hitzarmen hori sinatzeko arrazoi nagusietako bat, adin-tarte hori beste aseguru medikoetako baino askoz ere zabalagoa baita.

## **MUSEO SAN TELMO**

Azaroan sinatu zen lankidetzako hitzarmen bat San Telmo Museoarekin, Gipuzkoako mediku elkargokideei bertako erakusketetan eta sarreretan deskontu bereziak eskaintzeko.

## **YOY HOTELES**

Sendagileen Elkargoak hitzarmen bat sinatu zuen 2018an YOY Hotelekin, talde horretako mendiko hoteletan Gipuzkoako elkargokideek deskontuak lortu ahal izan ditzaten.

# ELKARGOA, ZUGANDIK HURBIL

[www.comgi.eus](http://www.comgi.eus)



@comgipuzkoa



@comgipuzkoa



[www.facebook.com/colegioelkargoa](https://www.facebook.com/colegioelkargoa)



<https://www.linkedin.com/company/colegio-oficial-de-médicos-de-gipuzkoa---gipuzkoako-sendagileen-elkargo-ofiziala?originalSubdomain=es>



[https://www.youtube.com/channel/UC\\_em\\_xnZpRCjVKVoAmWj17Q](https://www.youtube.com/channel/UC_em_xnZpRCjVKVoAmWj17Q)

# FUNDAZIOA

## 2018KO MEMORIA

SECRETARITZA

[fundazioa@comgi.eus](mailto:fundazioa@comgi.eus)

[www.comgi.eus](http://www.comgi.eus)



**Fundazioa**

GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA  
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA

# AURKEZPENA

Fundazioa irabazi-asmorik gabeko antolakundea da, eta 2011. urtean sortu zen Elkargoaren ekimenez. Elkargoaz kanpoko bi patronoren (AMAre eta BANKOAre) ekarpenei esker finantzatzen da bere osotasunean.



## Helburuak

Fundazioak hainbat alderdi jorratzen ditu bere izaeragatik: ongintza, asistentzia, osasungintza eta heziketa, bere onuradunen, alegia Gipuzkoako mediku elkargokideen premia eta beharrian berehalakoenak eta oinarritzkoenak asetzerara bideratuta betiere.

Zehazkiago esateko, hauek dira bere helburuak:

- Mediku elkargokide guztiei zuzendutako trebakuntzako jarduerak sustatu, kudeatu eta koordinatzea gure lurraldean.
- Gizarte-laguntza sustatu, bideratu, bultzatu eta finantzatzea. Horretarako, dohaintzak eta diru-laguntzak ematen zaizkie medikuen alargunei eta seme-alabei, eta bekak eta laguntzak eskaintzen zaizkie medikuei nahiz medikuen umezurtzei.
- Osasun-gaietan trebakuntza eta informazioa zabaltzeko aukeran dauzkagun baliabide eta ezagutza guztiak herritarren eskura jartzea.

## Egitura

2018ko ekainean, eta Elkargoan izandako hauteskondeekin batera, Fundazioak bere egitura berritu zuen, eta orduz geroztik era honetan dago egituratua:

**PRESIDENTEA:** Ignacio Eizaguirre Sexmilo Jn.

**PRESIDENTEORDEA:** María Belén López Rubio And.

**IDAZKARIA:** Belén Alonso Macías And.

**DIRUZAINA:** Victoriano Irigoyen Murua Jn..

**BATZORDEKIDEA:** María Aranzazu Elicegui Sarobe And.

**BATZORDEKIDEA:** Carol Julyssa Cobian Malaver And.

**BATZORDEKIDEA:** Jose Javier Korta Murua Jn..



## PRESIDENTEAREN AGURRA

**BERE AHALMENEN BARRUAN GIPUZKOAKO MEDIKUEN HEZIKETA ETA TREBAKUNTZAKO AUKERAK AHALIK ETA MODURIK EGOKIENEAN BETETZEA, BATETIK, ETA BIZTANLERIA OSOARENTZAT IREKITAKO DIBULGAZIOKO JARDUEREN BITARTEZ HIRITARREN HEZIKETA SANITARIOAN PARTE HARTZEA, BESTETIK. HORIEXEK IZAN ZIREN GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALEKO FUNDAZIOAREN SORRERA EKARRI ZUTEN HELBURU NAGUSIAK.**

Elkargokideei eskainitako gizarte-laguntzek osatzen dute Fundazioaren funtsezko beste helburuetako bat, medikuen alargunei eta medikuen seme-alabei dohaintzak, bekak edo diru-laguntzak emanez.

Azkenik, duela urte batzuk Kooperazioko Bulegoa jarri zen martxan Fundazioaren barruan. Bulego horretatik hainbat jarduera burutzen dira kooperazio eta lankidetzak medikoa sustatzeko, eta laguntza ematen zaie geure elkargokideek parte hartzen duten Gobernu Kanpoko Erakundeei garapen bidean dauden herrialdeetan osasun-arretako beren egitasmoak aurrera eraman ahal izan ditzaten.

2018ko ekainean Elkargoko Gobernu Batzordea berritzeko egin ziren hauteskunderen ondotik, aldaketa batzuk gertatu ziren batzorde horren osakeran, Fundazioaren egitura bera ere aldatuz, eta berrikuntza horien ondorioz Fundazioaren buruan zegoen Begoña Azkarate doktorearen lekukoa hartzea egokitu zitzaidan. Azkarate Dk.aren agintaldian Fundazioak garapen handia izan zuen, trebakuntzako jarduerak ugalduz, Osasun Heziketako ikasgela jarri zen martxan, Fundazioaren sariak sortu ziren, medikuen liberazioa errazteko lankidetzak-bidetik abiatu ginen Biodonostia erakundearekin lkerketako beka batzuk eskainiz, eta Kooperazioko Bulegoa sortu zen.

Fundazioaren patrono berriek altxor bikain horri eutsi nahi diogu, epe labur nahiz epe luzera hobekuntzak ezartzen saiatzearekin batera. Berandu baino lehen martxan jarri nahi genukeen helburuetako bat online moduko ikastaroak edo ez erabat presentzialak, bederen, bultzatzea izango litzateke, gai mediko desberdinen inguruko trebakuntza edo eguneratzea modu malguagoan ahalbidetzeko, eta gaur egun eskaintzen diren trebakuntzen artean tailer praktikoen eskaintza hobetzea, profesionalak ezagutza teoriko hutsaz gain alderdi praktikoa ere landu eta eskuratu ahal izateko. Horrez gain, trebakuntza jarduera batzuk Elkargoaren Donostiako egoitzatik kanpora ere eskaini ahal izatea gustatuko litzazuke, probintzia osoko elkargokideen trebakuntza errazteko.

Hori guztia bideratzeko, koordinatzaile tekniko bat jardungo da lanean hemendik aurrera Fundazioaren barruan, Fundazioaren eragiketa-ardatz nagusi gisa, eta baita aholkulari mediko bat ere, Gipuzkoako elkargokideen trebakuntzako premiak atzeman eta bideratzeko arduradun moduan, Elkargoko bulegoak Fundazioaren jarduera guztietan eskaintzen duen ezinbesteko laguntza alde batera utzi gabe. Prest gaude elkargokideengandik sor daitezkeen trebakuntza mailako proposamenak jasotzeko, eta zinez saiatuko gara proposamen horiek behar bezala aztertu eta geure ahalbideen barruan praktikara eramaten. Horixe baita gure asmo nagusia: Fundazioa izatea aurrerantzean ere Elkargoaren jardueren bultzatzaile nagusia.

# JARDUERAK

## AURREZ AURREKO IKASTAROAK

Elkargoko Fundaziotik antolatzen dira Gipuzkoako Sendagileen Elkargoak eskaintzen dituen trebakuntzako ikastaro gehienak. Ikastaro horiek guztiak doakoak izaten dira elkargokideentzat, eta gehientsuenak Eusko Jaurlaritzak behar bezala akreditatuak.

2018. urtean, batzordea berritzeaz gain, Fundazioaren koordinatzailearen figura sortzen da, eta aholkulari mediko bat ere gehitzen da, Iratxe Urreta Barallobre Dk. hain zuzen ere, ikastaro guztien edukia eta ikuspegia gainbegiratzeko. Emandako ikastaroak jarraian zehazten dira:

### 2018ko DATUAK

Trebakuntzako 17  
ikastaro antolatu  
ziren guztira

10 ikastaro Eusko  
Jaurlaritzaren  
akreditazioarekin

750 pertsonak  
eman zuten  
izena ikastaro  
horietan

Ikastaroetan izena  
emandakoen totala  
% 78,7koa da

## ELKARGOKIDEEN TRABAKUNTZA

### HEZIKETA FINANTZARIOA

#### OSASUNGINTZAKO LANGILEENTZAT

Ikastaroaren arduraduna: European Financial Planning Association

Egunak: 2018ko otsailak 13, 14 eta 15

Izena emandakoen kopurua: 26

### LARRIALDIETAKO MEDIKUNTZA: EMERGENTZIAK BEHAR BEZALA MANEIAITZEKO

Ikastaroaren arduraduna:

Arantza Aguillo García Dk.

Hizlariak: Arantza Aguillo Dk, Oihana Urbina Dk, Oihana Ormazabal Dk, Manuel Cancio Dk,

Luis Javier Garcarena Dk, José Ramón Aginaga Dk, Alberto Boyero Dk, Laura González Dk, Salvador Jesús Avilés Dk.

Egunak: otsailak 26 eta 27, martxoak 5, 6, 19 eta 20 (goizeko eta arratsaldeko txandetan)

E.J.ren kredituak: 1,4

Izena emandakoen kopurua: 72 goizez / 100 arratsaldez

### ARNAS FUNTZIO-PROBEN IKASTAROA

Ikastaroaren arduraduna:

Beñat Labeguerie Arenaza Dk.

Hizlariak: Beñat Labeguerie Dk., Lander Atutxa Dk. eta Iñaki Salegi Dk.

Egunak: maiatzak 2 eta 3

E.J.ren kredituak: 0,4

Izena emandakoen kopurua: 38





## TUTOREENTZAKO IKASTAROAK

### FEED BACK ERAIKITZAILEA: EGOILIARRARI EDO IKASLEARI IKASTEN LAGUNTZEKO

Ikastaroaren arduraduna:  
Juan Carlos Arbonies Dk.  
Hizlaria: Juan Carlos Arbonies Dk.  
Egunak: 2018ko urtarrilak 29 eta 30  
E.J.ren kredituak: 0,5  
Izena emandakoen kopurua: 24

### TAILERRA: TUTORETZA PLANIFIKATU ETA KUDEATZEKO GIDA. GAITASUNEN ARABERAKO TREBAKUNTZA ESPEZIALIZATUA

Ikastaroaren arduraduna:  
Pilar Ruiz de Gauna Bahillo And.  
Hizlaria: Pilar Ruiz de Gauna Bahillo And.  
Eguna: ekainak 25  
Izena emandakoen kopurua: 25

### EGOILIARREN TUTOREAREN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA

Ikastaroaren arduraduna: Ana Ballarín González Dk.  
Hizlaria: Ana Ballarín González Dk.  
Eguna: urriak 10  
Izena emandakoen kopurua: 28

## SOLASALDIAK ADITUEKIN

### IKUSMEN URRIA

Ikastaroaren arduraduna:  
Dra. Cristina Irigoyen Dk.  
Hizlariak: Cristina Irigoyen Dk. eta Eider Gutierrez optikoa.  
Eguna: otsailak 28  
E.J.ren kredituak: 0,3  
Izena emandakoen kopurua: 12

## BA AL DU MIKROBIOTAREN IKERKETAK APLIKAZIO PRAKTIKORIK EGUNEROKO AHALEGIN FISIKOAN ETA ARRETA KLINIKOAN?

Ikastaroaren arduraduna: Teresa Gaztañaga Dk.  
Hizlariak: Ascensión Marcos Sánchez And., Teresa Gaztañaga Dk, Usune Etxeberria And.  
Eguna: martxoak 8  
E.J.ren kredituak: 0,5  
Izena emandakoen kopurua: 28

## EGUNERATZEAK\*

### GRIPEAREN KONTRAKO TXERTAKETA: EGUNGO EGOERA ETA GOMENDIOAK

Ikastaroaren arduraduna: Luis Ignacio Martínez Dk.  
Hizlariak: Luis Ignacio Martínez Dk., Carlos Gustavo Cilla Dk., Rosa Sancho And.  
Eguna: Azaroak 12  
Izena emandakoen kopurua: 9

### NORK BERE BURUA KONTROLATZEA ANTIKOAGULAZIO KRONIKOAN. AUKERA ERREALA.

Ikastaroaren arduraduna: Tayda Alvaríño Dk.  
Hizlaria: Tayda Alvaríño Dk.  
Eguna: azaroak 22  
Izena emandakoen kopurua: 8

\*OHARRA: 2018ko ekainaren 13an egindako bileran, "Solasaldiak adituekin" izenaren ordez "Eguneratzeak" hautatzea erabaki zuen Fundazioaren batzordeak. Helburuak, ordea, bere hartan jarraitzen du: eguneratze desberdinen inguruan dibulgazio-mailako hitzaldiak eskaintzea, gai bakoitzean adituak direnen eskutik. Hiru hilean behin egingo dira aurrerantzean ere, eta elkargokide guztientzat irekiak izango dira. Solasaldi hauek, ikastaroen kasuan gertatzen denaren alderantziz, ez daude akreditatuak, bere iraupena ordubetekoa edo ordu eta erdikoa izaten baita, akreditazioa lortu ahal izateko eskatzen dena baino laburragoa, alegia

## IKERKUNTZAKO BEKAK

Profesional medikoen ikerketa sustatu eta errazteko asmoarekin, Fundazioak lankidetzako akordio bat dauka sinatua Biodonostia Osasun Ikerketako Institutuarekin, ikerketako hainbat proiektu martxan jartzen laguntzeko. Proiektu horiek bertako elkargokideen parte-hartzearekin eramaten dira aurrera. Eta Fundazioak, zehazki esateko, egun-erdiko lana ikerketa horietara bideratuko duten bi medikuren liberazioaren kostu finantzarioa hartzen du bere gain.

2018ko urte honetan Donostia Unibertsitate Ospitaleko Laura Basterretxea Badiola Dk. eta Altzako Osasun Zentroko María Ángeles Gutiérrez Stampa Dk. Izan dira liberazio hori erdietsi duten medikuak.



## FUNDAZIOAREN SARIAK

Urteak daramatza jadanik Gipuzkoako Sendagileen Elkargoko Fundazioak mediku gipuzkoarren trebakuntza-mailako ahalegina aitortzen, eta medikuntzako ikasleen nahiz lanbide medikoan diharduten ikertzaile eta dibulgatzaileen lana baloratzen. Eta urtez urte deitu eta banatzen diren Fundazioaren Sariak dira aitortza horren adibiderik onena.

Aipatu sari horiek mediku egoiliar berriei egiten zaien ongietorri ekitaldian banatzen dira urtero, eta 2018an ekainaren 14an izan zen.

### Hauek izan ziren 2018ko sariak eta sarituak:

- Ignacio María Barriola Dk. IV. saria, 2017ko doktorego-tesi onenarentzat
- Iratxe Urreta Barallobre Dk.
- Pilar Lois Dk. IV. saria, Aldizkari mediko batean argitaratutako artikulua zientifiko onenarentzat
- Andrea Gabilondo Cuellar Dk.
- Garbiñe Otxoa Dk. IV. saria, Barneko Medikuko Egoiliarrek aurkeztutako Poster edo Ahozko komunikazio onenarentzat
- Itsaso Sexmilo Ayarra Dk.
- Miguel Echenique Dk. IV. saria, Unibertsitateko Ikasketa Espediente onenarentzat
- Jon Ander Aguirrezabala del Rio Dk.
- Jose de Begiristain Dk. Saria, al mejor Trabajo de Fin de Graduación en Euskera
- Amaia Iturriotz Etxaniz Dk. Ayarra



## LANKIDETZA BULEGOA

Urtero deialdi bat egiten da Fundazioaren Lankidetz Bulegotik geure elkargokideek parte hartzen duten Gobernu Kanpoko Erakundeen nazioarteko lankidetzako proiektuei diruz laguntzeko.

2018. urtean, aurkeztutako proiektu guztiei diru-laguntza emateko aukera izan zuen Fundazioak, Donostia Ospitaleko Medikuen Elkarte Profesionalak, elkarte hori desegin ondoren Fundazioari egindako dohaintza ekonomikoari esker. 33.232,83 € eman ziren guztira, 13 proiekturen artean banatuak. Nazioarteko lankidetzako proiektu horiek Hego Amerika, Afrika, Asia eta Europako hainbat herrialdetan burutzen dira urtean zehar.

Garapeneko GKEei diru-laguntzak eman aurretik, iaz laguntzak jaso zituzten 3 proiektuetako ordezkariak igo ziren taula gainera, beraiek lan egin zuten lurraldearen errealitatea erakusteko eta diru-laguntzak euren proiektuarentzat ekarri zuen onuraren berri emateko.

MUNDUKO BEGIAK erakundearen izenean, Nagore Arbelaitz Dk. 2017ko proiektuaz mintzatu zitzaigun. Kasu honetan, jasotako diru-la-

guntza Mopti (Mali) eskualdeko giza baliabide sanitarioen begi-osasuneko gaitasunak eta ahalbideak sendotzera bideratu zen.

SAHARA CONMIGO erakundetik, berriz, Tindouf-eko (Argeliako) errefuxiatu sahararren kanpamenduetan, eta Auserd-eko wilayan zehazkiago esateko, desgaituen zentroko eta itsu nahiz gormutuentzako prestatutako sentimen-eskolako neska-mutikoen hortz-haginen osasuna hobetzeko proiektua azaldu zuen Carlos Lopetegui Dk.ak.

Azkenik, LA VALMUZA FUNDAZIOAren ordezkari gisa, Teresa Solaun Dk.ak Mozambike hegoaldeko landa-giroan arriskuan dauden adoleszenteen osasun-heziketan zentratua dagoen proiektuaren berri eman zigun.

## 2018. URTEAN DIRUZ LAGUNDU DIREN PROIEKTUAK:

### • GKE: AMSOGRA

Proiektua: Nikaraguako Nueva Segovia hirian Alfonso Moncada de Ocotal ospitalean ingresatutako jaioberrien tratamendu luzerako eskatutako materialen erosketa.

Arduraduna: Iñaki Aguiriano Garaikoetxea Dk.  
Emandako diru-laguntza: 3.000 €



- **GKE: MUNDUKO BEGIAK / OJOS DEL MUNDO**

Proiektua: Maliko Mopti eskualdean begi-osasunean diharduten giza baliabide sanitarioen gaitasunak eta ahalmenak sendotzea. Arduraduna: Nagore Arbelaiz Pascual Dk. Emandako diru-laguntza: 3.000 €

- **GKE: MUGARIK GABEKO PALIATIBOAK**

Proiektua: Kamerun-go Bikop Ospitalean zainketa aringarrietako gaixoen arreta bideratzeko materiala erostea. Arduraduna: Alex Wilson Astudillo Alarcón Dk. Emandako diru-laguntza: 2.232,83 €

- **GKE: SAHARA NIREKIN 1**

Proiektua: Irribarre bat marraztu: Auserd-eko wilayan desgaituen zentroko eta itsu nahiz gormutuentzako eta wilaya horretan bizi diren langile saharaiuentzako, sentimen-eskolako neska-mutikoentzako prestatutako hortz-haginen osasuna hobetzeko proiektua, eta baita Aaiun-go wilayako desgaituen zentroko neska-mutikoentzako ere, Tindouf-eko (Argeliako) errefuxiatu

sahararren kanpamenduetan. Arduraduna: Carlos Lopetegi Mecolalde Dk. Emandako diru-laguntza: 3.000 €

- **GKE: SAHARA NIREKIN 2**

Proiektua: Instalazio eta ekipamendu odontologikoak mantentzeko ikastaroa. Arduraduna: Carlos Lopetegi Mecolalde Dk. Emandako diru-laguntza: 1.000 €

- **GKE: DENOK OSASUNAREN ALDE - TODOS POR LA SALUD (D.O.A.)**

Proiektua: Arretaren eremuan osasun-sistema sendotzeko lankidetzako proiektua, osasun-langileak gaitu eta trebatzeko. Guatemala, 2018. Arduraduna: Javier Torán Montserrat Dk. Emandako diru-laguntza: 3.000 €

- **GKE: LA VALMUZA FUNDAZIOA**

Proiektua: Osasunaren hobekuntza eta gaikuntza, Ginea Bissau-ko Sibana herrixkako eskolan, ura lortzeko sarbide eta irispide segurua bideratuz. Arduraduna: Teresa Solaun Abrisqueta Dk. Emandako diru-laguntza: 3.000 €

- **GKE: UTOMI ELKARTEA**

Proiektua: KONTAKIZUNAK, Afrikan baliabi-de urriko herrialdeetan (Mozambiken) GIB/HIESaren inguruko egoera ezagutu eta ezagutzera emateko.

Arduraduna: Ana Fuertes Rodríguez Dk.

Emandako diru-laguntza: 2.000 €



- **GKE: ITSASOKO LAGUNTZA HUMANITARIOA**

Proiektua: Osasun-laguntza Chios-en.

Arduraduna: Gloria de la Parra Amorena Dk.

Emandako diru-laguntza: 3.000 €

- **GKE: VICENTE FERRER**

Proiektua: Indiako Anantapur eskualdean errehabilitazioko zerbitzuetara sartzeko aukera eta kalitatea, eta gaixotasunen detekzio goiztiarra hobetzea.

Arduraduna: Dolores Baixas de Ros Dk.

Emandako diru-laguntza: 2.000 €

- **GKE: ESPERANTZAREN IRRIBARREA FUNDAZIOA**

Proiektua: Noma gaitzaren sekuelak dituzten pazienteen tratamendua, Burkina Faso eta Boli Kostako lurraldeetan.

Arduraduna: Ángel Emparanza Aróstegui Dk.

Emandako diru-laguntza: 3.000 €

- **GKE: AITA MENI**

Proiektua: We are like yoy: osasun mentaleko proiektua, Liberiako jendearentzat.

Arduraduna: Iñaki Madariaga Zamalloa Dk.

Emandako diru-laguntza: 2.000 €

## ETORKIZUNeko ERROnKAK

Elkargoko Fundazioak nabarmen ugaltu ditu azken urteotan bere jarduerak. Eta aurrerantzean ere, Fundazioko patrono berriekin lan horrekin jarraitzeko konpromisoa hartzen dute bere gain, epe laburrera nahiz epe luzera beste proiektu batzuk ere bultzatzeaz gain, esate baterako :

- **Online moduko ikastaroak edo ez erabat presentzialak**, bederen, bultzatzea gai mediko desberdinen inguruko trebakuntza edo eguneratzea modu malguagoan ahalbidetzeko.
- Gaur egun eskaintzen diren trebakuntzen artean **tailer praktiko**en eskaintza hobetzea, profesionalak ezagutza teoriko hutsaz gain alderdi praktikoa ere landu eta eskuratu ahal izateko.
- **Trebakuntzako jarduera batzuk Elkargoaren Donostiako egoitzatik kanpora** eskaintzea, probintzia osoko elkargokideen trebakuntza errazteko.
- **Gizartearen hainbat kolektibori** (irakasleak, ostalaritza, etab.) **osasun-heziketa eskaintzea**, jarduera berrien bitartez gizartearen baitan osasunaren dibulgazio-lanean jarraitzeko.